



80.zk

2024^{ko}
ekaina

Berberotarra



Berberok 35 urte, Bagara nor

Dereduan matrikulatutako haur eta ikasle kopurua ez da % 50era heltzen. Eskualdeko gertaeren berri izateko gaztelerazko komunikabideetara jo behar da. Hizkuntz paisaiaren gehiengoa gazteleraz, Landakotik Tabirara zein San Faustotik Aramotzera. Kultur eskaintzan ere euskara gazteleraren oso atzetik. Haurrek euskarazko aisialdiaz gozatzeko ere hamaika komeria.

Egoera horiek aspaldiko oroitzapenak ekarriko dizkie gogora batzuei. Gazteenei, ordea, ezagutu gabeko sasoiak irudikatzen balioko die. Laurogeiko hamarkadan Durangon euskarak zuen (ez) lekuaren inguruan ari gara.

Euskararen desertuaz hitz egitea gehiegi da, aurreko hamarkada ilunetan ere aritu baitziren euskaltzaleak zuten lur apurrari eusten eta soro berriak ereiten:

Kurutziaga Ikastolaren sorrerarekin 60ko hamarkada amaieran egin bezala eta, urte batzuk geroago, helduen euskalduntzea martxan jarrita; azken hau, besteak beste, AEKri esker.

Berberok 1989. urtean sortu zen, aurrekoek ereindako lurra baliatuta eta, batez ere, euskararen territorio librea hedatu guran. Durango euskalduntzeko helburua jarri zuen elkarteak eta hamaika proiektu sortu orduz geroztik: taberna, haurrentzako euskarazko aisialdirako proiektuak, udalekuak, kultur ekimenak, urteko azken bertso-saioa, Saguganbara, Haur Literatura Aretoa... eta jakina, euskaltzale gehiagoren laguntzaz martxan jarritako proiektuak: Eraz-Anboto, Karrika, Dida eta Plateruena.

Ibilbide hori ospatu genuen maiatzaren 31n Plateruena.

1989ko bokazio berberarekin, 35 urteko bide oparo honetan hazitako ondarea aitortu eta euskararen ekosistema zabaltzeko asmoz. Hori baita euskarak behar duena, ekosistema osoa: lurra, soroa, kalea, komunikabideak, administrazioa, kirola, lan arloa edota eremu digitala euskalduntzea. Erabileran ere saltoa ematea.

Garazi Arrulak Baionan esan bezala: "nor izatearen aitortza, horixe dugu euskara: ez gehiago, ez bestelako, ez gutxiago. Bedi gutxiago konpetentzia, eta gehiago konpromiso, norabide, zeharlerro, harrobi-de."

35. urteurrenean Plateruena elkartu ginen berbarotarrak, euskaltzaleak, zozoak. Lurretik basora igarotzen ari garelako eta, batik bat, basoa geroz eta gehiago zabalduko dugula ospatzeko. Bagara nor.

Gazte eta txikientzat tailerrak urte osoan



Berbaron antolatutako haur eta gazteentzako tailerrek indar handia hartu dute ikasturte honetan. Horiek bi taldetan sailka ditzakegu. Alde batetik, Olgetan tailerrak izeneko proiektua eta bestetik, udaberriko egonaldietan egin ditugun tailerrak. Olgetan tailerrak adin tarte batzuetan eskaintzen dugun aisialdian hutsune bat topatu genuelako sortu dugu. 11-14 urte bitarteko gazteentzat Itzartu izeneko proiektu arrakastatsua dugu. Hilean behin ekintzak egiten

ditugu eta askotan adin tarte horretan sartzen ez diren umeek ere parte hartu nahi izaten dute. Horregatik, 9-10 urte bitarteko umeentzat antzeko zerbait antolatzea erabaki dugu.

Hasieran lau tailerregitea aurreikusitu genuen: rap tailerra, jostintza tailerra, sukaldaritza tailerra eta antzerki tailerra. Hala ere, antzerkia ezin izan dugu gauzatu, baina datorren ikasturtean ekintza honi bigarren aukera bat ematea erabaki dugu. Proiektu honen helburuetako bat Durangaldeko sortzaileekin

elkarlanean aritzea da, horregatik, tailer hauek emateko konplize izan ditugu Pello Azkarate, Ainhoa Gangoitia eta Karrika Antzerki Taldea.

Udaberriko egonaldiak dagokienez, arrakasta handia izan ez dutenez, udaberriko oporretan 2014-2019 urteen artean jaiotako umeentzat Udaberriko tailerrak antolatzea erabaki dugu. Lorezaintza tailerra, krepeta tailerra, txotxongilo tailerra eta pintura tailerra. Urte pare bat daramatzagu udaberriko eta neguko egonaldiak egin gabe, parte-hartze faltagatik, eta aurtengo tailerrak umei asko gustatu zaizkiela ikusita, beharbada urtero errepikatuko den ekintza bat izango da.

Harrera ezin hobea izan dute, horregatik, hurrengo ikasturtera begira, berriro proposatzea aurreikusten dugu. Tailer hauek hainbat gaitasun garatzeko espazioak izateaz gain, haurrei eta gazteei euskaraz modu naturalean aritzeko aukera ematen diete.

Durango film laburren erakusleihoko: Laburbira eta Labor Esanda



Apirilean eta maiatzean Durangon film laburrez gozatzeko aukera bikoitza izan dugu.

Alde batetik, apirilaren 19an eta 20an, Labor esanda lehiaketaren IV. edizioa izan zen Plateruenan, Berbarok antolatuta. Irudimena, sorkuntza eta auzolana batzen dituen lehiaketa. Urtero lez, parte hartzaileek gaia (bertigoa), objektua (kopa) eta esaldia ("Esanik erruz egi bat eta bi gezurrekin ase") jaso

zituzten ostiral arratsaldean, eta 24 ordu izan zituzten film labor bat sortzeko. 600 euro banatu ziren saritan. Gidoia, aktore-lanak, zuzendaritza eta produkzio gaitasunak erabili behar izan zituzten erlojuaren kontra. Puixemoi produkzioak taldeak irabazi zuen lehen saria, Jabetza lanagaz; bigarren eta hirugarren sariak Zaharraz Harro (Zirrikitu zoro oro zutik irriz lanagaz) eta Hariketarrak (Terapia) taldeek eraman zituzten.

Bestalde, maiatzaren 2an Laburbira itzuli zen Durangora, euskaraz sortutako eta ekoiztako film laburren zirkuitua. 21. edizioa izan da aurtengoa. Bi helburu izan ditu: euskal zinemagintza sustatzea eta herritarrei euskal film laburrak erakustea. 22 lan aurkeztu dira, eta zortzi aukeratu dituzte herriz herri egin zen zirkuituan parte hartzeko. Tartean, etxeko zinemagile baten obra: Amaia Lejarrera durangarraren Erro film laburra. Egilea bera Elkartegian izan zen, eta solasaldia eskaini zuen. Egitasmoa Topaguneak antolatzen du, eta Durangoko proiektzioa Berbaroren bitartekaritzagaz antolatu zuten.

Ikusleek film labor onena hautatzeko aukera izan zuten zortzien artean: Dena asmatuta dago (Jones Arriola), Katalinaren zoria (Guillermo Ordás), Erro (Amaia Lejarreta), Babesa (Ander Iruretagoyena), Mundu berri bat (Mikel Alvarez), Zirrara (Ane Cuesta), Talkak (Ilune Diaz eta Jordi Nuet) eta Betizu buru (Ander Iriarte)

Film laburren jaialdia maiatzaren 12ra arte ibili zen Euskal Herriko udalerrietan barrena.

ALDAGELA: Kirol taldeak ezagutzeko proiektua

Durangaldeko Mankomunitatearekin batera sortutako ekimen honek eskualdeko kirol-aniztasuna nabarmentzea eta horietan diharduten taldeei ikusgarritasuna eta protagonismoa ematea du helburu. Hau guztia gazteek gehien erabiltzen dituzten plataformak erabiliz, Instagram (@alda.gela) eta TikTok (@aldagela) batik bat, betiere euskara eta kirola aitzakiatzat hartuta.

Ikusterraza izateko, bideoek bi minutuko iraupena dute, gehienez. Dinamismoa bermatzeko, irudi asko erabiltzen dira, ikuslea entrenitzea bilatzen baitugu. Hiru eduki nagusitan banatzen dira bideoak. Lehenik,



kluba gertutik, non alde batetik, taldeko entrenatzaile edo arduradunari klubaren inguruko galderak egiten zaizkion (esperietziak, kirolari buruzko xehetasunak...). Bestetik, taldeko kirolari batzuek lehiaketa eran, arduradunari egindako galdera berak norberaren esperientziatik erantzuten saiatzen dira.

Bigarrenik, instalazioen deskribapena: talde bakoitzak erabiltzen dituen azpiegituren aurkezpena egiten diguten bideo laburra izaten da. Hirugarrenik eta bukatzeko, egun bat kirolariarekin. Taldeak txapelketa batetara kamera eraman eta egun baten inguruko azalpena egiten du; errutinak, emozioa eta eguneko xehetasun guztiak deskribatzen ditu. Bideo horiekin taldeen errealitatea ezagutaraztea lortu nahi dugu, hurbiltasunetik, naturaltasunetik eta kirolarien esperientzietatik.

Orain arte, Mugarra Triatloi Taldea, Abadiño Sokatira Taldea, Durango Rugby Taldea eta Zaldibarko Olazarmendi Erritmika Taldearekin egin ditugu grabaketak. Aurrera begira, eskualdeko beste herri batzuetako klubekin lan egitea gustatuko litzaziguke, Berrizko hipika eskolarekin eta Elorrioko eskubaloi taldearekin, adibidez.

Aldagelak, klub horien ikusgarritasuna handitzeaz gain, Durangaldeko gazteak hainbat kirol-jardueratan parte hartzera bultzatu nahi ditu, euskara aitzakia hartuta, bizimodu osasungarria eta aktiboa sustatzeko.

Udalekuak eta formakuntza

Ikasturtea amaitzen ari dela, badatoz 2024ko udalekuak eta aurtengo berrikuntza bezala, hezitzaileen formazioak.

23-24 ikasturtea amaitzear dagoela, hezitzaile, ume, gazte zein familiek dagoeneko begirada jarria dute udalekuetan. Aurtengo eskaintza oparoa da, betiko lez 5 udaleku egingo dira: Olgetan ekainaren 24tik uztailaren 24ra, 4-10 urte bitarteko umeentzat, Larraul, ekainaren 27tik uztailaren 6ra, LH 3-4ko umeentzat, Mendigorria, uztailaren 9tik 20ra,

LH 5-6ko umeentzat, Ibiltari txikia (Markiñatik Larrabetzura) ekainaren 28tik uztailaren 9ra, DBH 1-2ko gazteentzat, eta Ibiltari Handia (Algortatik Elantxobera) uztailaren 10etik 21era DBH 3-4 eta Batxilergoko 1.mailako gazteentzat. Aurreko urteko formatu berdina izango dute udalekuek, baina badugu "berrikuntza" bat. Udan Olgetanen 4 aste eskaintzeaz gain, uztailaren 22, 23 eta 24an gozatzen jarraitzeko aukera izango dute txikienek Jarraitu Olgetan deituriko luzapenean.



Horrez gain, azken urteetako udalekuak aztertuta eta gaur egungo gazteen egoerak ikusita, beharrezkoa deritzogu aurten derrigorrezko formakuntza saioak egitea. 2 formakuntza jaso dituzte hezitzaileek, alde batetik, Urtxintxa eskolak eskainitako hezkidetzaren inguruko formakuntza, eta bestetik, gaixotasunen ingurukoa. Esan bezala, azken urteetan hainbat egoeren aurrean egon diren portaerak, jarrerak, hartutako erabakiak... ikusita, beharrezkoa iruditu zaigu aurtengo formakuntza saioetako bat hezkidetzaren ingurukoa izatea. Bestetik, gaixotasunak gure gizartean presente daudenez, eta gaur egungo gazteek geroz eta gaixotasun gehiago dituztela antzeman dugunez, horien inguruko oinarriko kontzeptuak ikastea eta erreparasatzea da bigarren formakuntzaren helburua.

Aurtengo udalekuak ere egundokoak izango dira, eta gazteek primeran pasatuko dute!

Apirilaren 23an liburuak opari

Urtero moduan, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, 70 liburutik gora banatu ditugu Durangon zehar. Gehienbat haur eta gazteei zuzendutako liburuak izan badira ere, tartean helduentzako zenbait liburu ere banatu ditugu. Oparitan batu eta lema esanguratsu bat jarri diegu: "Pantailatik urrundu une batez, urratu ezazu paperezko bilgarria, urratu itzazu idatzi gabeko arauak. Ikutu, zabaldu, liluratu... Zeuretzat da. Hartu, irakurri eta konpartitu!".

Gure helburua euskarazko literatura plazaratzea eta irakurzaletasuna bultzatzea dira. Batez ere haur eta gazteek euskarazko liburuak irakurri eta partekatzea animatu nahi izan ditugu.



Durangoko Euskara Kontseilua martxan

Apiriletik martxan dago Durangoko Euskara Kontseilua. Pozgarria, zalantza barik. Baina, tira, eman diezaigun begirada sakonagoa gaiari:

Durango euskalduntzeko eginkizuna du Udalak, eta Euskara Kontseilua, eginkizun hori herritarrekin elkarlanean egiteko espazioa da. Horretarako, 2000. urtearekin batera hasi zuen bidea Euskara Kontseiluak. Ibilbidea, ordea, gorabeheratsua izan da; batetik, Euskara Kontseilua ez baita espazio egonkorra izan eta, bestetik, erakundeek euskalduntzean apustu sendoagoak egin beharko lituzketelako.

Kontseiluan parte hartzen ari garen ikastetxe, elkarte eta alderdien aldetik lanerako gogo sendoa nabaritzen dugu. Aprobetxatu dezagun!



Larrosa

Ez dago larrosarik, ez. Ez da larrosarik egongo kartelak elebidun argitaratzea, orduetgia euskaraz idaztea edo merkealdietako kartela rebajasekuekin batera jartzea zoriontzekoa bada.

Arantza

Pickleball Durango Klubak ate irekien jardunaldia antolatu zuen maiatzaren 1ean.

Gonbidapen- kartela erdara hutsean dago. Hori gutxi balitz bezala, web gunea eta Instagrama ere bai. Ez dute disimulatu, ezta itxurakeriagatik bada ere, euskarak ez du lekurik. Kuriosoa.

Euskararen normalizazioaren aurkakoa da hain oinarrizko kontuak saritzea.

Detailtxo horiek ez dira aurrerapausoak, euskararen komodinak baizik.

Edo benetakoa da, edo ez da.



Laguntzailea: